



# IRUÑEAN BARRENA

## ***Kantu kontari!***

2019-12-12

### GAZTELU ENPARANTZA



Gaztelu Enparantza Iruñeko Egongela bezala ezaguna da, irunsemeak bertatik ia egunero pasatzen baitira. Bertan, XIV. mendean Luis Burugogorrek gaztelu bat eraiki zuen, eta hortik datorkio izena. Mende pare bat beranduago, Fernando Katolikoak gaztelu zaharra bota eta beste gaztelu bat eraiki zuen, mende bat beranduago bota zuten. Plazaren erdian kiosko bat dago, musika banda, txistulari eta gaitari ugarik erabiltzen dute. Plaza hau lehen guztiz itxita zegoen, baina XX. mendearen hasieran Gayarre antzokia bota eta Errege baten omenezko etorbide zabala ireki zuten.

*Zein da errege horren izena? Zergatik da ezaguna? Atera ezazu argazkia bere eskulturapean.*

---

---



## SARASATE PASEALEKUA



Pablo Sarasate biolin-jotzaile zoragarria izan omen zen. Mundu osoan zehar ezaguna, San Ferminetan Iruñera etorri ohi zen, bere herrikideekin festak pasatzera. Oso famatua zen; horregatik, hil ondoren, pasealeku honi bere izena jarri zioten. Bertan, eskultura oso altu bat ikusiko duzu, Nafarroako Foruen omenez eraikitakoa 1893. urtean. Horren aurrean, urtero Iruñeko Tonbola kokatu ohi da. Aurreraxeago, hainbat estatua topatuko dituzu. Horiek Madrilgo Erret Jauregia egiterakoan soberan geratu zirenez, Iruñera ekarri zituzten.

*Zein erregeren estatuak dira? Atera ezazu argazkia Foruen Monumentuaren aurrean.*

---

---

## UDAL ENPARANTZA



Iruñeko Udal Enparantza lehen sakan (zulo) bat zen. Iruñea hiru auzo edo “Burgo”ren artean banatuta zegoen, eta haien arteko tirabirek askotan gerrara eramaten zuten. Gudekin bukatzeko, Karlos III.a erregeak Batasun Pribilegioa sinatu zuen. Hiru hiri ezberdin izatetik Iruñea hiri bakarra izatera pasa zen. Udala estilo Barrokoan egin zen, eta nahiz eta askotan berritu duten, aurrealdeak gaur egun arte iraun du.

*Zein ospakizun famaturi ematen zaio hasiera Udal Enparantzari? Eta amaiera? Atera ezazu argazkia Udaleko fatxadaren aurrean.*

---

---

## SAN ZERNIN ELIZA





San Zernin eliza dagoen toki bereberan, erromatarrek Diana jainkosaren omenezko tenplu bat eraiki zuten. Eliza estilo gotikoz eraikita dago, nahiz eta barnean barroko eta neogotikoa ere aurkitu. Bere dorre altuetatik Burgoen arteko gerretan erasoak egiten ziren. Eliza honen aurrean ikusiko duzuen “Pocico”an jartzen duenez, bertan Iruñeko lehendabiziko kristauak bataiatu zituzten. Pareta batean, oso pintura handia topatuko duzue, atzealde gorriduna.

*Nor uste duzue dela hor agertzen den jainkosa? Egin ezazue argazkia elizaren aurrean.*

---

---

## KATEDRALA



Iruñeko hiria Ponpeyo jeneral erromatarrek sortu omen zuen, negua pasatzeko kanpamendu bat gaurko katedrala dagoen tokian eraiki zuenean. Gaurkoa baino lehenago beste katedral bat egon zen, eta Karlos III. erregeak gaur egungoa eraiki zuen, estilo gotikoan. Halere, XIX. mendearen hasieran, aurrealde berri bat egin zioten, bi dorrerekin, aurrekoa ez baitzitzaien gustatzen. Iruñean kanpai erraldoi bat zegoen, Maria izenekoa. Oso handia zen. Horregatik dorrea eraiki baino lehen igo zuten eta dorrea eraiki zuten kanpaiaren inguruan. Pixka bat arreta jartzen baduzue, erraz aurkituko duzue kanpai hori.

*Zein dorretan dago kokatuta Maria izeneko kanpaia? Egin ezazue argazkia katedraleko fatxadaren aurrean.*

---

---

## HARRESIAK



Iruñea historikoki soldaduz betetako hiria izan da. Bere kokaleku estrategikoak eta barne arazoek soldadu asko mantentzea eskatzen zuten, eta edozein arerori aurre egiteko defentsak indartsuak behar ziren. Horrela, historian zehar Iruñeko Harresiak eraiki ziren. Haien behatokitatik Iruñeko iparraldearen zati handia ikus dezakezu. Aurre aldean mendi itzela ikus daiteke, Ezkaba, eta Antsoain, Artika eta beste auzo eta herri batzuk. Hor bertan Zaldi Zuriaren taberna kokatzen da. Nahiz eta itxuraz Erdi Arokoa dirudien, XX. mendean egindakoa da. Irunsemeok ordu asko pasatzen ditugu hango terrazetan lagunekin solasean.

*Zeintzuk dira behatokitatik ikusten diren Iruñeko auzoak? Egizue argazkia behatokitatan.*

---

---



## LABRIT



Iruñean kirol ezagun eta propiorik baldin badago, hura esku pilota da. Historiako pilotaririk handienak nafarrak izan dira (Retegi II.a, Ruben Beloki, Patxi Eugi, Aimar Olaizola edo Martinez de Irujo, kasu). Labrit pilotalekuaren atze aldean “Jito alai” frontoia kokatzen da. Frontoia horrela deitzea ijitoei zor diegu, bertan pilotan aritzen omen zirelako. Gaur egun ez da arraroa lehen mailako pilotariak hor berotzen ikustea, partida hasi aurretik...

*Zer berezitasun du frontoi horretako ezker paretak? Egizue argazkia Labrit pilotalekuaren aurre aldean.*

---

---

# DENOK ELKARREKIN

## TACONERA PARKEA



Taconera betidanik zuhaitzez betetako espazioa izan da Iruñean. Bertan jarri zituen bere tropak Albako Dukeak Nafarroa konkistatu zuenean, iruindarrei beldurra emateko. Taconerako lorategiak Iruñeko parkerik zahar eta ederrenak dira, bai eta ezagunenak ere. Ia 90.000 metro karratu hartzen ditu, harresien inguruan dago, Alde Zaharretik oso hurbil, estilo erromantikoari jarraiki eta Versaillesko airean egina. Behin saiatu ziren Madrilgo "el Retiro" parkean bezala Takonerako zuloa urez betetzen, txalupatxoak etab. jartzeko, baina hemengo lurra ur guztia xurgatu zuen, eta Larrainatik behera ibaira joan zen.


Egiturari begira, zuhaitzak eta loreak tartekaturik daude era askotako eskultura lanekin eta horrek hainbat ibilbide egiteko aukera ematen du. Baina leku zoragarri honen ezaugarri nagusia lubanarroetan dagoen zoo txikia da: hantxe bizi dira oreinak, ahateak, faisaiak, zisneak, indioilarrak... erdi askatasunean.



Bertan ikus dezakezue Julián Gayarre tenorearen omenezko eskultura. Mundu osoan ezaguna izan zen tenore hau, eta bere eztarria Erronkarin dagoen bere jaiotetxean kontserbatzen da.

*Talde argazkia aterako dugu parkean*

## BALUARTE JAUREGIA



2003. urtera arte Iruñeak ez zuen izan lehen mailako auditoriorik. Urte horretan Patxi Mangadok Baluarte jauregia eraiki zuen. Antzina bertan Iruñeko harresi eta Ziadadelak elkar konektatzen zuten. Baluartek L erraldoi baten forma du, eta Iruñeko gune estrategiko batean kokatzen da, Lehen Zabalgunearen eta Ziadadelaren artean. Bere areto nagusian 1.500 pertsona baino gehiago sartzten dira, eta lehen mailako kontzertu, opera edo balletak izaten dira ikusgai. Areto txikian, aldiz, 444 pertsona sartzten dira. Kanpotik ikusten duzuen harri beltza Zinbabetik (Afrika) ekarritakoa da.

*Atera ezazu argazkia Ate Nagusiaren aurrean.*





## ZIUDADELA



XVI. mendean Iruñea soldaduz betetako hiria zen. 1512. urtean Gaztelak konkistatu zuen, eta Fernando Katolikoa erregea bertakoen beldur zen, ez ote ziren Gaztelako errege berriaren aurka altxatuko. Era berean, Iruñea Frantziako mugatik oso gertu zegoen, eta leku ezin hobeena zen gotorleku bat kokatzeko. Horrela, Giacomo Palearo “Fratín” ingeniariari Ziudadela eraikitzeke agindua eman zion. Mende askotan armadaren egoitza izan bada ere, gaur egun, 300.000 metro karratuko lorategi batek inguratzen du. Bertan, jendeak korrika edo beste kirol batzuk egiten ditu. Barnealdean hainbat eraikuntza aurkituko dituzu, eta bertan mota ezberdinetako erakusketak egiten dira.

*Zein armak defendatzen dute Ziudadelako sarrera nagusia? Egin ezazu argazkia horien ondoan.*

---

---